

Jesus Alberdi Garbizu Egileor

*Bergara,
Gipuzkoa
(1931-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Elosuko Egileor baserrian jaio zen 1931ko urtarrilaren 6an, baina gazterik Osintxura joan zen bizi izatera. Osintxutik Bergarara joan zen bizi izatera gero. Garai bateko kontuak eta ohitura zaharrak ongi gogoratzen zituen eta oso kontalari ona zen. Bertsolari ezaguna izandakoa, gai horren gainean ere azalpen interesgarriak eman zizkigun. [Bitori Larrañaga](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

BER-200

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-01-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BER-201

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-01-17
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

BER-205

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-02-02
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Elosun jaiotakoak

- **Erref:** BER-200/001
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Egileor baserrian jaiotakoa 1931-01-06an. Bitori, 1932-03-06an, auzo bereko Narbaiza baserrian.</p>

Transkripzioa

- J: Ta erregen egunien.
- Erregen egunian, e?
- J: Bai, bai., erregen egunekua.
- Oseake, egun espeziala, ez?
- J: Bai, bai, bai, bai, egun... Hori esaten zebeñ lehen, esaten ze... erregiek ekarri nindduela esaten zebeñ zerak eta...
- Bai, e?
- J: Bai, gurasuak hala esaten zebeñ behintzet, harek ekarrittakua nitzala ni. Baiño gero, gero hasi nitzen konturatzen pixkat, baiña ez segittuen, e! Ene! Trankil bizi giñen ta... Tontuek ez giñen baiña ezjakiñek bai, ta gero konturatu nitzen beste zerbait ete zeuan hor. Baiña behin burura etorri

jatan hori... asunto hori etorri jatanian handi aurrera nahiko buru-
kantsaziño euki nuen, e! Harik eta erabaki artien zela izen zeikien hori.
Baiña bai, behintzat erabaki nuen noizpaitten, baiña ez nintzen atrebitzen
ez gurasoei ta ez anai-arrebei esaten . “Hori ez dok, ba, hola izengo”,
baila... Behintzat, azkenean, neuk erabaki nuen bazala erregieandik
fuerakua zeozer bazeola erregieandik kanporakua, bai. Bazan, bai.
- Eta zu, Bitori, noiz eta nun jaixotakua zara?
- B: Ni be Elusun. Elusun, martxuan seixen, hogeta hamabixen.
- Oseake, urtebeteko aldia dakazue...
- B: Urtebete gaztiao.
- Eta basarrixak be gertuan dare zeuenak?
- B: Bai, ni Narbaiza basarrixen.
- J: Bai, bai, basarrixek gertuan dare. Alkarren gertuen, bastante gertuen
alkartu giñen.
- Orduan, ume-umetatik ezautuko ziñazien...
- B: Onbre! Hoixe!
- J: Bai, bai, bai... Eskolan alkarrekin ibili giñen ta nik uste dot handitxik
hasi giñela gu alkarrekin ta gaur arte.
- A, bai, e? Eta bizimodua, umetako bizimodua zelakua zan orduan?
Eskolara ta juaten ziñazien beti ala...?
- B: Ke, ba!
- Basarrixan lanik ez zeuanian ala noiz izaten zan hori?
- J: Nik sei bat hillebete ein nittuan eskolan. Eskolan formal antzien ein
nittunak sei bat hillebete. Aurretik ez giñuan guk eskolaik ikesi. Dotriñiakin
nahikua lan euki giñuan ta... kitto! Haura... handik aurrera eskolarik [...].

2. Eskola zaharra

- **Erref:** BER-200/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Umetako bizimodua. Eskola zaharra. Maistra.

Transkripzioa

- J: Alkarren gertuen, bastante gertuen alkartu giñen.
- Orduan, ume-umetatik ezautuko ziñazien...
- B: Onbre! Hoixe!
- J: Bai, bai, bai... Eskolan alkarrekin ibili giñen ta nik uste dot handitxi hasi
giñela gu alkarrekin ta gaur arte.
- A, bai, e? Eta bizimodua, umetako bizimodua zelakua zan orduan?
Eskolara ta juaten ziñazien beti ala...?
- B: Ke, ba!
- Basarrixan lanik ez zeuanian ala noiz izaten zan hori?
- J: Bai, nik... nik sei bat hillebete ein nittuen eskolan. Eskolan formal
antzien ein nittunak sei bat hillebete. Aurretik ez giñuan guk eskolaik ikesi.
Dotriñiakin nahikua lan euki giñuan ta... kitto! Haura... handik aurrera
eskolaik [ez...]. Lehenguan esan [nizun] han Bergaratik jun ziela bi... bi
maestra ta haretzek erakustittako apurrakin oinddio hola bizi gaittun.

Oindio hola bizi gaittun.

- Orduan eskola zaharra ta zeuek ezautu zenduen...

- J: Bai, ondo! Han dao oindio Elusun eskola zaharra.

- B: Sakape zulo bat.

- J: [Kobraixotako] ganbara zahar baten egoten giñen, baiña...

- Bai?

- J: Bai. Ez zan leku haundiik, baiña bueno... Hala ere zeozer ikisi bagiñu, baiña ez, ez zeuen, gaiñera... maestro zeona ´re adiñien aurrera zoian ta... Larogetaka urte ta allegauta geratu zan bera be ta ez, handik ez zeuen ezer ikesterik. Gero honek erun zittuenien haretzek mobidu zebeu eskolia hamen ta gero, ba, kanpora. Horrek alde ein zebeu batera-bestera hasi zan hor bertako jende gaztia ´re, batzuk Bergarara, beste batzuk Zumarragara, beste batzuk Azkoittira ta... norabait mobidu. Ez zeuen hor.

- Orduan zeuen edadeko ume asko zeren Elosun?

- B: Bai! Ordun jende asko juntatzen giñen! Ordun asko juntatzen giñen!

- J: Gero egon zan beste maestra bat. Zela zan haura? Gu ez giñen ibili, gu alde einda ordurako, baiña...

- B: Bai, Madalena edo...

- J: Madalena edo, bai. Ha oso emakume ona izan bihar zuen; ona izan bihar zuen harek.

- B: Bai, baiña haura bastante gero, e!

- Bai?

- J: Bai, oindio ´re, behintzet, harekin batera ibilittakuek eta eitten dittue bazkaixak alaçkarrekin ta bai. Ondoezak... ondoezak eitten jakon uste dot.

- B: Bai, nahiezak uste dot eitten jakola.

- J: Mareon batzuk eta eitten jakon ta... Oso... Baiña beste basarri baten egoten zan ta... Alde ein zuen, alde ein zuen, baiña haren eskola lagunek asko akordatzen die oindio harekin. Haura emakume kuriosia izen bihar zuan.

- B: [...] gure eskolako denboran lana baldin bazeon, bateko ittulua ta hurrengo ganau zaitzia ta... eskolai errez lagatzen jakon, e! Oso-oso errez laga.

- Bai, ezta? Orduan, gaiñera, gurasuak biharbada be ez zebeu problema larrei ipiniko, ez?

- Ez, ez, ez, ez. Harek nahixao zebeu eskolara bialtzia baiño etxe... edo ganauek zainttu edo nunbaitten ardi-zaintzie edo etxien han, etxe inguruen bertan. Ez zan orduen, eskolai ez jakon orduen inportantziik emoten. Han ez behintzet!

- Ez, han eta inguru guztian be ez, ez?

- B: Bueno, han ez behintzet.

- Orduan basarriko bizimodua, ba...

- B: Bai, basarrikua halaxe zan ta...

- J: Bai, bai.

3. Baserriko bizimodua umetan

- **Erref:** BER-200/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetan baserrian lagundu behar. Baserriko emakumeak oso gogorrak izaten ziren.

4. Urte-sasoirik gogorrena baserrian

- **Erref:** BER-200/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Baserrian urte-sasoirik gogorrena, udazkena izaten zen. Garo-batzea, baba, arto-zuriketa. Basoa.

5. Elosu; auzoaren banaketa

- **Erref:** BER-200/007
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Elosu auzoaren banaketa. Bidea egin zenean, auzoaren beherakada hasi zen. Jendea lanera kanpora irteten hasi zen.</p>

6. Elosu; bidea noiz egindakoa den

- **Erref:** BER-200/008
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Elosu auzoa. Bidea egin zenean, auzoaren beherakada hasi zen.

7. Baserriaren egitura

- **Erref:** BER-200/009
- **Iraupena:** 0:07:16. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:23:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:39:28. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Garizuman "galderonka", txirikiletan. Jolas arriskutsua zen. </p>

12. Dotrina eta jaunartzea

- **Erref:** BER-200/014
- **Iraupena:** 0:06:25. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Abadearen inguruko kontuak. Dotrina. Pazkoako txartela. Jaunartzea.</p>

13. Oinetakoak; galtzagintza

- **Erref:** BER-200/015
- **Iraupena:** 0:12:35. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Oinetakoak: abarkak; abarketak. Artilearekin egindako jertseak. Eskularruak. Galtzagintza. Artilea dornuan egiten zuten.

14. Argindar-etxea auzoan

- **Erref:** BER-201/001
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Zinkezko ontziak erabiltzen zituzten lixiba egiteko. Auzoko argindarra depositu handi batetik ateratzen zen ("Maalitturri"). Bertan harri-losak ere bazeuden eta garai batean alberga hartan garbitzen zituzten arropak.</p>

15. Argi elektrikoa baserrian

- **Erref:** BER-201/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian argi elektrikoa beti ezagutu dute. Argia joandakoan egin gabe geratzen ziren lanak, hurrengo egunean egin behar izaten zituzten.

16. Mezara ez joatea gaizki ikusita

- **Erref:** BER-201/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Mezara joatea derrigorrezkoa. 15 egunetako elurteak ezagutu izan dituzte. Bezperan, idiekin elurra garbitzen zuten. Mezara ez joatea gaizki ikusita zegoen. "Egileor"en ama oso fededuna.</p>

17. Abadeen sermoiak eta Arantzazuko frailia

- **Erref:** BER-201/004
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Abadeen sermoiak gogorak izaten ziren. Arantzazutik fraideak etortzen ziren eta 8 egunetan sermoiak ematen zituzten. Emakumeak negarrez mezatan. Lehenago abadeei berorika egiten zitzairen. Abadeak elizakoak eramaten zituenean, belauniko jarri behar izaten ziren. Abadeari oilaskoak, egur-burdikara eramaten zitzaion.</p>

18. Konjurua eta suberria

- **Erref:** BER-201/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Konjurua zer izaten zen. "Suberria". Egun horretan abadeari zer ematen zitzaion; Gabonetan; arimen egunean...

19. Bertsolaritza Bergara inguruan

- **Erref:** BER-205/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bergaran bertsolari bat egon da, eta bera Osintxukoa, Gorrotxategi. Gazte bat ere bada orain: Ainhoa Agirreazaldegi, bertso-eskolatik irtendakoa.

20. Egileor bertsolaria: gaztetako ibilerak; lehenengo bertso emanaldia

- **Erref:** BER-205/003
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Egileorrek berezkoa izan du bertsotarako zaletasuna. Hasierako urteak. Elosuko erromeriara joan ezin eta lagun artean jarduten zuten bertsotan Elosuko benta inguruan. Lehenengo bertso emanaldia non. Lizaso. Elosuko erromeriara artean sartu ezinda.

21. Elosuko erromeria Oktaba egunean

- **Erref:** BER-205/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Erromerietara joateko 18 urte inguru behar izaten ziren. Oktaba egunean (jai eguna Elosun) umeak ere egoten ziren, baina beste erremediorik ez zegoelako. Erromeria "ataipe" batean egiten zen eta umeak ezin ziren gerturatu ere egin. Soinujolea, Markos Elorza.

22. Elosu inguruan soinujole on asko

- **Erref:** BER-205/005
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Soinujole ezagunak inguruan. Azkoitia aldean soinujole on asko. Egileor soinujole askorekin bertsoan ibilitakoa. Matxinbentako erromeria; Santa Ageda eskean.

23. Mendi-erromeria ezagunak

- **Erref:** BER-205/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Mendi erromeria ezagunenak: Elosu, Aizpurutxo, Urrategi, e.a. Sasoi batean jai egun bakar batean bi erromeriatara joaten zen Egileor.

24. Erromeria kontuak: dantza lotua eta dantza soltea; isunak...

- **Erref:** BER-205/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Dantza soltea; lotua. Aizpurutxon beti ezagutu izan dute dantza lotua; baina Azkoitian ez. Zumarragarekin mugan, mugarrian egiten zuten dantza; mugarriaren alde batean dantza soltea eta beste aldean dantza lotua. Isunak ere egoten ziren. Kontu horiek bertso ezagun batzuetan ere jasota daude.

25. Erljioaren indarra gizartean: sermoiak, debekuak...

- **Erref:** BER-205/008
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Gizartean egon diren aldaketak, izugarriak dira. Justu-justuan ez direla sasoirik onenean jaio (umore handiz kontatutako pasadizoak). Abadeei errespetu handia; beldurra. Kongregazioak. Aste Santuan fraideak etortzen ziren Arantzazutik misiotara Elosura. Zortzi egunez egoten ziren bertan. Sermoi gogorak, goiz eta iluntze. Emakumezkoak negarrez. "Dana sua eta erretzia! Dana inperua!". Orduko bizimoduaz gaur pentsatzen duten. "Ez zonan giro izaten!".</p>

26. Abadeei berorika egiten zitzaien

- **Erref:** BER-205/009
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Abadeei berorika egiten zitzaien. "Danak euren mendien!".</p>

27. Erljioaren inguruko ohitura zaharrak: baraurik joan behar elizara...

- **Erref:** BER-205/010
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Goiz-meza eta meza nagusia. Baraurik joaten ziren elizara eta jendea sarritan ondo ezik. Konfesatzera ere baraurik; ezer hartzeke. Ohiturak noiz hasi ziren aldatzen.

28. Kongregazio desberdinak

- **Erref:** BER-205/012
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:25:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Kongregazioak. Luistarrak; Marian alabak. Nagusiak, frantziskotarren kongregazioan. Eskapularioak ("esklopediauak"). Hirugarren ordena. Jaunartze handia egin ondoren sartzen ziren kongregazioan. Hilabetean behin konfesatzera joan behar.</p>

29. Erljio kontuak; ohitura zaharrak

- **Erref:** BER-205/014
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Nagusiak ere kongregazioetako kide izaten ziren. Gurasoek eliza barruan jantzen zuten eskapularioa. Mantila jaiero jantzen zuten. Senideren bat hiltzen zenean, bederatziruena. Bi mantila eramaten ziren orduan (handia eta txikia). Argizaiola. Mantila-lekua.</p>

30. Hilarriak elizan; senideren bat hiltzen zeneko ohitura zaharrak

- **Erref:** BER-205/016
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:30:05. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Hilarria elizan. Familia bakoitzak argizaiola izaten zuen. Hildakoa zegoenean, manta beltza jartzen zen. Urte-mezan kentzen zen manta-beltza. Gaur egungo belaunaldiek ez dituzte ohitura horiek ezagutzen.</p>

31. Kanpai motak eta hiletan inguruko ohitura zaharrak

- **Erref:** BER-205/017
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Kanpaiak aspaldian geldirik. Oktaba egunean eta Asentzio egunean, kanpai guztiak batera jotzen zituzten. Meza aurretik bi kanpai jotzen zituzten (ordu laurden lehenago eta orduan). Goizeko kanpaia, albakoa. Iluntzean, aramaitakoa. Eguerdian, angelusa. Aingeru kanpaia. "Auzorik hurrena"; laguntasuna behar zenean baserri hartara deia pasatzen zen. Hildakoa mezara eramaten zenean, aurretik auzorik-hurrena joaten zen opilekin. Ohitura zaharrak.

32. San Anton Abat egunean ermandadeko bazkaria

- **Erref:** BER-205/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Ermandadea. S. Anton Abat egunean pasatzen ziren baserri baserri abereen zerrenda egitera. Bazkaria bentan. "Ganau-partitzia", zozketaren bitartez.

33. Umetan barraskiloak eramaten zizkioten abadeari

- **Erref:** BER-205/020
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Abadeari barraskiloak eramaten zizkioten umetan, eta zerbait ordaintzen zien. Meza-kantatzen koruan.

34. Santua edo Ama Birjina etxez etxe

- **Erref:** BER-205/021
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:41:45. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ohitura zaharrak. Santua edo Ama Birjina kaxatxo batean etxez-etxe pasatzen zen. Elosun ez zuten ohitura hori ezagutu.

35. Pazkoa egunean, su bedeinkatua eta ur bedeinkatua

- **Erref:** BER-205/022
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Pazkoa egunean, su bedeinkatua eta ur bedeinkatua. Ur bedeinkatua, bakoitzak berea hartzen zuen. Su-berria, sakristauak partitzen zuen eta arrautzak batzen zituen ordainean. Ilazkia. Erramu egunean, gurutzeak bedeinkatzen zituzten.</p>

36. San Juan bezperan, San Juan sua egiten zuten

- **Erref:** BER-205/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:49:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan bezperan, San Juan sua. Pizti txarrak galtzeko erabiltzen zen garai batean. Umetan ilusio handia.</p>

37. Errege eguna nola ospatzen zuten

- **Erref:** BER-205/024
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:49:15. **Bukatu:** 00:50:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Errege eguneko kabalgata. Xabier Zubizarreta abadeak ekin zion ohitura horri.</p>

38. Gabonak baserrian

- **Erref:** BER-205/025
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabonetako jaiak. Baserrietan ez zuten jaiotzarik ipintzen. Elizan haurtxo Jesus egoten zen.</p>

39. Sorgin kontuak. Ezkioko Ama Birjina

- **Erref:** BER-205/026
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:56:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Sorgin-kontuak. Sorgin-zulo; toponimia. Ezkioko Ama Birjinaren inguruko kontua. Guraso eta nagusi gehienak joanda zeuden bertaraino oinez.</p>

40. Bergarako medikua; Azpeitiko sasimedikua

- **Erref:** BER-205/027
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:56:35. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Medikua Bergaratik igotzen zen Elosura; Don Carlos. "Trukumun" sasimedikua Azpeitian. Medizinarik onena, porru-pataatak. Don Carlosen inguruko pasadizoa ahari batekin. Porrua, urrezko aitzurrarekin atera beharreko jeneroa zela zioen medikuak.

41. Azpeitiko sasimedikoaren inguruko kontuak

- **Erref:** BER-205/028
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Azpeitiko "Trukumun". Oilo-gantzarekin igurtzi; ganadu-odola egin; e.a.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com